

## GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 2,15 milioi euro aurreztuko ditu legegintzaldi berrian buruzagitzen % 8,24 murriztuta

*Horrez gain, goi-kargudunen eta konfiantzako karguen % 23,7 kendu da, beraz, langileetan, guztira, 3 milioi euro aurreztuko dira*

Miércoles, 24 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak 2,15 milioi euro inguru aurreztuko ditu urtean Administrazioako erdi-mailako arduradunen % 8,24 murriztu ondoren. Zehazki, 44 kudeaketa unitate kendu ditu: hamalau zerbitzu, hogeita bost atal eta erdi-mailako beste bost arduradun Osasunbidea eta Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoetakoak. Buruzagitzen 490 unitate daude guztira eta aurreko legegintzaldian, 534 unitate izan ziren.



Nafarroako Gobernuak, saioan elkartuta

Horrek zera esan nahi du: iragan uztailean goi-mailako kargudunen eta konfiantzako karguen % 23,7 kendu eta 888.239 euro aurreztuta, langileetan murriztu den gastua urtean 3 milioi euro baino gehiagokoa da.

14 zerbitzu kentzeak (zuzendaritza nagusien azpian, segidan, dauden unitateak. Horietako titularrak Nafarroako Gobernuak izendatzen ditu funtzionarioen artean), zehazki, maila horretako unitateen % 9,8 kentzea dakar berekin eta, beraz, 720.627,32 euro aurrezteak. Administrazioaren egitura berriak 143 zerbitzu ditu guztira; aurreko legegintzaldian, aldiz, 157 zituen.

Bestalde, 25 atal kendu dira (zerbitzuen azpian, segidan, dauden unitateak. Horietako titularrak merezimendu bidezko lehiaketa bidez izendatzen dira), hau da, kudeaketa unitate horien % 7,9, eta batez beste 1.125.000 euro aurreztu dira. 2011-2015 legegintzaldian Foru Administrazioak 316 atal izango ditu guztira; aurrekoan, 341 atal zeuden.

Horiez gain, erakunde autonomoetan erdi-mailako bost arduradun murriztu dira; horietatik lau Osasunbidekoak dira eta bestea Nafarroako Zerga Ogasunekoak. Horren bidez, langileen kopurua % 13,9 murriztu eta 300.000 euro inguru aurreztuko dira. Organigrama berriak maila horretako 31 unitate ditu; agintea amaituko duen gobernuan, aldiz, 36 unitate zeuden.